



Zumaiako Udala



2022ILAB0002-T22/0074

DEIALDIA:

ZUMAIAKO UDALEAN HUTSIK GERATU DEN IDAZKARI LANPOSTUA BITARTEKO FUNTZIONARIO IZAERAZ BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA.

OPOSIZIOALDIKO ARIKETA TEORIKO-PRAKTIKOA EGITEKO DEIALDIA ETA INFORMAZIOA

1- Prozesuan onartuak izan diren hautagaiei, oposizioaldiko ariketa teoriko-praktikoa egiteko deialdia egiten zaie, ondoren azaltzen den moduan:

Data: 2022ko uztailaren 21a

Lekua: Zumaiako Aitzuri Pilotalekua

Ordua: 9:00tan emango zaio hasiera ariketari baina hautagaiak 8:45tan bertaratu beharko dira.

Ariketaren inguruko informazioa:

Oinarrietako seigarren oinarriak ondorengoa arautzen du, besteak beste:

Oposizioaldiko lehen ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila. Ariketa teoriko-praktikoa.

Ariketa honi, gehienez ere, 70 puntu emango zaizkio; eta gainditzeko, ezinbestekoa izango da gutxienez 35 puntu lortzea.

Oinarrietan araututakoa kontuan izanik, ondorengo eran antolatu da ariketa:

Ariketak bi zati izango ditu:

Lehena, teorikoa. Hainbat galdera teoriko garatu beharko dituzte hautagaiak (10 gehienez ere).

Atal honi, gehienez ere, 20 puntu emango zaizkio.

Ordu eta erdi izango dute hautagaiak atal hau egiteko, **9:00etatik 10:30era**.

Ondoren, **ordu erdiko atsedena** emango da, **10:30etatik 11:00era** eta jarraian, **bigarren atalari, praktikoari**, emango zaio hasiera.

Atal praktikoan **bi kasu praktiko** garatu beharko dira.

Kasu praktiko bakoitzari, gehienez ere, 25 puntu emango zaizkio.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022ILAB0002-T22/0074
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD4F9N.hyyt



Zumaiako Udala



2022ILAB0002-T22/0074

Hautagaiek, kasu praktikoak garatzeko, iruzkin gabeko legedia eman ahal izango dute.

Hiru ordu emango dira atal praktikoa garatzeko, 11:00etatik 14:00era.

Bestetik, kontuan izanik seigarren oinarriak ondorengo arautzen duela:

Zumaiako Udalaren 2018-2022 epealdirako euskararen erabilera plaza aintzat hartuta, 2018ko azaroaren 14an egindako Udalbatzaren osoko bilkuran onartua izan zena, gutxienez ariketa horietako bat euskaraz formulatu ahal izango da, eta euskaraz erantzun edo landu beharko dute hautagaiek.

Hori kontuan izanik, kasu praktikoetatik bat, euskaraz formulatuko da eta euskaraz erantzun edo landu beharko dute hautagaiek.

Hala jartzen da guztientzat agerian Zumaiako Udaleko iragarki taulan eta webgunean.

Sin./Fdo.: Epaimahai Kalifikatzaileko idazkaria / Secretaria del Tribunal

Dokumentu kod./Cod. Documento	2022ILAB0002-T22/0074
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAD4F9N.hyyt